

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## GASTEIZKO ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

**Gasteizko Hauteskunde Batzordea eratzea 2015eko udal hauteskundeetarako eta Biltzar Nagusietarako hauteskundeetarako**

## EDIKTUA

Hauteskunde Araubide Orokorra arautzen duen Lege Organikoak xedatutakoarekin bat etorriz, nola deia egin den udal hauteskundeak (martxoaren 30eko 233/2015 Errege Dekretua) eta Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeak (Diputatu Nagusiaren martxoaren 30eko 49/2015 Foru Dekretua) 2015eko maiatzaren 24rako egiteko, 2015eko apirilaren 1ean Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratu da, eta batzordeak hurrengo kide hauek ditu:

– Jose Luis Nuñez Corral jauna, Gasteizko 1. Auzialdiko 5 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– Emilio Ramón Villalain Ruiz jauna, Gasteizko Zigor arloko 1 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

– Francisco Javier Pablo Pablo jauna, Gasteizko 1. Auzialdiko 2 zenbakiko epaitegiko magistratu eta epailea.

o Zigor aroko ZULUPeko idazkari (Gasteizko 1. Instrukzioko epaitegia) Maria Visitación Fernandez Gomez de Cadiñanos andrea jardungo da Hauteskunde Batzordeko idazkari lanetan.

Aipatutako legeak 14.3 artikuluan xedatutakoa betez, Jose Luis Nuñez Corral jauna Gasteizko Eskualdeko batzordeburu aukeratu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 1a

*Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkaria*

**MARÍA VISITACIÓN FERNÁNDEZ GÓMEZ DE CADIÑANOS**